


Bagatoz!



TKASTOLAK



Bagatoz indar berriz





Ikastolak gara. Euskal Herri osoan euskarazko hezkuntza hedatzen duen sare eraldatzailea, herri-ekimenekin eta gizarte eragileekin elkarlanean, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi, Nafarroa Beherea, Nafarroa Garaia eta Zuberoa biltzen dituen antolamendua.

115 ikastolak osatzen dugu sarea eta era guztietakoak gara: txikiak, handiak, berriak, ez hain berriak... baina batzuk zein besteak, bagatoz lanera, heztera, eraldatzera, sustatzera, jolastera! Bagatoz indar berriz!

7

Herrialde

115

Ikastola

46.000

Familia


55.500

Ikasle

3.700

Langile

**eta
zenbakiz
adierazi
ezin den
beste
guztia!**



Bagatoz
**aldi berrirako
irudi berriarekin!**


Bagatoz
**betiko balioekin
eta proiektu berriekin!**

Bagatoz,
indar berriz

Ikastolok marka berria estreinatu dugu. Erronka berriak ditugu euskal gizartean eta ikastolek ilusioz heltzen diegu erronka berriei, ikuspegi berrietatik jardunez, egitasmo berriak sortuz, erantzun berriak eskainiz, eta orain marka berriarekin.

Aldi berrirako aukeratu ditugun izenak eta logotipoak gure izaera erakusten dute:

Izar itxurako ikurrak sarea irudikatzen du, horixe baikara: ikastola bakoitzean komunitate bat, saretuta; eta Euskal Herriko ikastola guztien artean beste komunitate bat, hura ere saretuta. Ikastolak.



IKASTOLAK

Hitz hasierako 1 horrekin, bat garela esan nahi dugu. Zazpiak bat. Edo 115ak bat. Historikoki erakutsi dugun ausardia ere jasotzen du i hizkiaren orde, zenbaki bat sartzeak. Eraldatzaileak gara, geure burua eraldatzeko prest gaudelako.

Amaierako -k horrekin plurala egiten dugu, gure arteko aniztasuna aldarrikatuz, eta aldi berean kolektibo bat garela erakutsiz. Asko gara, ezberdinak gara. Denok gara ikastola.

Bagatoz aldi berri batera!

Biharko euskal herritarrak gaurtik hezten
dituen hezkuntza sare eraldatzailea
osatzen dugu

Ikastolak atzo, gaur eta biharkoak gara. Joan den mendean sortu ginen, euskara debekatua zegoenean, gaurko euskaldunak hezteko. Eta euskara ofiziala den zein ez den lurraldeetan ari gara lanean gaur, gure garaiko erronkei helduz: pertsonen aniztasuna eta berdintasuna, kulturen arteko harremanak, denon lurraren geroa, garapen pertsonala eta elkarren zaintza, lan mundua eta gizarte onura...



Lankidetzan dihardugu
eta jardun nahi dugu
Euskal Herriko beste
hezkuntza eta gizarte
eragileekin

Lankidetzarako sen eta esperientzia hori partekatzen dugu euskarazko hezkuntzaren aldeko bestelako eragile ugarirekin ere. Haur eta gazteen hazkuntza pertsonal osoa helburu, euskara garatuz eta herrietako zein Euskal Herri osoko gizarte onura bilatuz.

Egiteko ederrena dugu gure gain: biharko euskal herritarrak gaurtik hezteak.



Biharko
komunitatea
hezten duen
komunitatea gara

Komunitate herrikoia, kooperatiboa eta prestatua gara: ikasleak, familiak, langileak eta ikastolazaleak

Euskaltasuna ardatz, herritar guztiak eta herritar osoak hezteko lanean diharduen sare eraldatzailea gara Ikastolak. 115 ikastola, tokian tokikoak eta nazionalak, Euskal Herri osoan zehar. Haurrak eta gazteak hezteko eta hazteko ardura gure gain hartu dugun komunitate aktiboa, kooperatibak titular direla, eskola eredu gertukoa, inplikaturik eta egonkorra garatzeko.



Bagatoz betiko balioekin!

Auzolana

Sarea



Naziotasuna



Euskalduntasuna

Elkartasuna

Inklusiboa

Herrigintza

Eraldatzailea

Hurbila



Kalitatezkoa


Garaikidea





Bagatoz proiektuekin!

Ikastolen betiko balioak sustatzeko metodoak berritzen, aztertzen eta sortzen jarraitzen dugu. Ikastolok bultzatu nahi dugun Pertsona Eredua ezarri dugunez, helburu horretara iristeko Hezkuntza Marko Orokorra zehaztu dugu eta, orain, hori lantzeko, ikas-material berriak ekoitziko ditugu. Garaian garaiko erronkei hobeto erantzuteko, Euskal Curriculum eta Hizkuntza Proiektuak eguneratzen ari gara. Badugu proiektu eder bat, ikuspegi holistiko batetik lantzen ari garena, zeinak pertsona bakoitza bere osotasunean hartuz, Ikastolen komunitatearen ongizatea zainduko baituen (ikasleena bereziki, baina baita profesional guztiena eta familiena). Aniztasunari erantzuteko begirada propio eta berritzailea garatzen ari gara. Digitalizazioan (zer, zenbat, noiz...) eta burujabetza digitalean hausnarketa prozesua egingo dugu etengabe. Balioak ez dira aldatzen. Proiektuak bai, garaiekin eta pertsonekin batera.



Ikastolen betiko balioak sustatzeko metodoak berritzen, aztertzen eta sortzen jarraitzen dugu. Balioak ez dira aldatzen. Proiektuak bai, garaiekin eta pertsonekin batera.

1KASTOLAK



bagatoz
indar berriz!

